

GERNIKA-LUMO / 'Bookcrossing' ekimenaren baitan, 108 liburu askatu dituzte herrian zehar

Gaztetxean, anbulatorioan, zenbait tabernatan, Behargintzan eta kiroldegian askatu dituzte liburuak, oraingoz.

Maite Orue

Sistema liburua edozein lekutan uztea da, parke batean, adibidez Mundu guztian zehar milaka irakurle biltzen dituen ekimenarekin bat egin du Gernika-Lumok, 'Bookcrossing'-a martxan jartzean. Begoña Madariaga liburutegiko erabiltzaileak egindako proposamena aintzat hartuta, Udal liburutegiak hainbat liburu utzi ditu herriko toki publiko batzutan, herritarrek irakur ditzaten eta ondoren berriz aska ditzaten. Andrea Aiape liburutegiko arduradunak zehaztu duenez, lehenengo pauso bezala 108 liburu jarri dituzte balizko irakurleengandik hurbil.

Euskarazko, gaztelerazko eta ingelesezko liburuak dira askatu dituztenak. Oraingoz, Gaztetxean, Santanape kiroldegian, Behargintzan, anbulatorioan, Scanlan's, Rugby, Aterpe, Lagun-Etxea eta Otxin tabernetan eta Musutruk kafe antzokian askatu dituzte. Asmoa, dena den, liburuaren zenbatekoa gehitzen joatea da, herritarrek eurenak ere askatzean. Izan ere, helburuetako bat norbanakoak etxean dituen liburuak askatzea da, besteekin parteka dezan hura irakurtzean sentitu izan duena.

Askatutako lekua zehaztu

Nahi duenak har ditzake toki publiko horietan utzitako liburuak. Daraman etiketako zenbakia ' www.bookcrossing ' webgunean sartuz gero, liburuak egin duen ibilbidea ezagutu ahalko du erabiltzaileak. Irakurri ondoren, liburu berriz askatzean webgune berean erabiltzaileak non askatu duen zehaztu dezan komenigarria dela esan dute liburutegiko arduradunek. Garrantzitsuena, ordea, irakurri eta berriz askatzea dela gogorarazi dute. 196.000 lagunek eman dute izena dagoeneko aipatu webgunean.

Lekuak

Gaztetxea. Hamalau liburu.
Santanape kiroldegia. Hamazazpi liburu.
Behargintza. 11 liburu.
Anbulatorioa. Hamar liburu.
Scanlan 's tavern. Hamahiru liburu.
Rugby Taberna. Hamar liburu.
Aterpe taberna. Bederatzi liburu.
Lagun-Etxea taberna. Hamar liburu.
Musutruk kafe antzokia. 11 liburu.
Otxin taberna. 11 liburu.

BEGOÑA MADARIAGA

Begoña Madariagaren (Igorre, 1979) proposamen bati esker jarri dute Udal liburutegiko arduradunek martxan 'Bookcrossing' edo Liburuak Askatu ekimena.

Zelan sortu zitzaizun ideia?

Irakurtzea oso gustuko dut. Kanpoan izan nintzen ikasten eta behin han aurkitu nuen liburu bat. Neuk ere bizpahiru askatu nituen ondoren, oso ideia ona iruditu zitzaidalako. Behin hemen, liburutegiko arduradunetako bat] baietz esan zidan. Andreak [Aiape, liburutegiko arduradunetako bat] baietz esan zidan. Gabonetarako liburuak askatzeko kanpaina egitea proposatu nion.

Liburutegiak, hortaz, ondo hartu zuen zure proposamena.

Bai, Hasieratik esan zidaten lagunduko zidatela, denon artean jarriko genuela martxan ekimena. Udalak oniritzia eman zion eta diru partida bat eman ziguten horretarako.

Ez da ohikoa liburutegiko erabiltzaile batek mota horretako ekimena prestatzea eta aurrera eramatea.

Ez da hain arraroa. Beharbada nik Gernikatik kanpo ikusi dudalako. Sei hilabetez izan nintzen liburutegi batean beharrean eta han ere jarri genuen martxan. Kasu hura desberdina zen, tabernetan-eta utzi beharrean liburuak kalean utzi genituelako. Korrante honek hainbat aldaera ditu. Jendeak kalean utzi ohi ditu liburuak, edonon, eta nik aireportu batean aurkitu nuen. Sistema edozein lekutan uztea da, parke batean, esaterako.

Askatutako liburuak zein lekutan utzi ere zuek erabaki duzue?

Bai. Batetik, irakurtzen aritzeko moduko txokoa duten taberna batzuk hautatu ditugu. Denek eman digute baiezkua eta ideia ona iruditu zaie. Bestetik, anbulatorioan, polikiroldegian eta beste leku publiko batzutan utzi ditugu. Hasierako pauso bat da egin duguna. Orain, ea jendea animatzen den. Herritarrek soberan ditzten liburuak aska ditzaten nahi dugu. Izena eta zenbakia ipini eta liburuak askatu baino ez da egin behar.

Zelakoa da funtzionamendua? Internet bidez aurkitzen dira liburuak, ezta?

Aurkitzen duzun liburuak zenbaki bat darama. Interneten zenbaki hori sartuz gero, liburuaren gaineko informazio guztia agertzen zaizu: nori askatu duen, non askatu duen... Interneterako aukerarik ezean, liburuak irakur zenezake eta ondoren beste leku batean utzi, beste barik. Garrantzitsua da liburuak berriz askatzea, beste bati emateko irakurtzeko aukera.

Zelako aurreikuspenak dituzue?

Idea oso ondo hartu du jendeak, gero ikusiko dugu norbanako bakoitzak zer egiten duen. Ekimenak behar duena berrelikadura da, hau da, jendeak bere liburuak aska ditzala beti ez izateko liburu berdina bueltaka dabilzanak. Zenbat eta jende gehiagok parte hartu, liburu gehiago aurkitzeko aukera izango da. Bestetik, ez da zertan liburuak Gernikan utzi behar. Irakurri ondoren Bilbon bazaude, utzi dezakezu liburuak han.

Askatutako gehienak euskarazkoak dira, ezta?

Asko bai. Hasiera batean 50 askatzea zen gure helburua, baina azkenean piloa aurkitu ditugu eta kopurua handitu egin da. Erdiak izango dira euskarazkoak. Ingeleseko batzuk ere badaude, ikasten dabilen jendeari zuzendutakoak, irakurterazak.